

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa, udalerriko hainbat menpeko toki-erakundetako lursail batzuen kalifikazio xehatuko lerrokadura batzuk zuzentzeko

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2020ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa, udalerriko hainbat menpeko toki-erakundetako lursail batzuen kalifikazio xehatuko lerrokadura batzuk zuzentzeko

Erabaki-proposamena

Onetsi nahi den aldaketa udal ekimenekoa da, Hirigintzako zinegotziaren 2019ko otsailaren 26ko ebazpen baten bitartez erabaki baitzen berorren idazkuntza.

Proposatutako aldagetaren beharra eta egokiera lurzorua kalifikazio desberdinen lerrokadurak erregulatzeko interesetik sortzen da, hartara ekidin nahi baita bai beharrezko ez diren lagapenak —are herri horien izaerari eusteko kaltegarri izan daitezkeenak ere— ezar daitezela, bai nolabaiteko interesa duten aurreko izakiak ken daitezela. Izan ere, gaur egun obra-lizentziak eman daitezela galarazten dute horiek, eta, zenbaitetan, ez da komeni geroratzeta, lehendik dauden eraikin tradizionaletan egokitze-, zaintze- nahiz sendotze-lanak egiteko beharrezko izaki, eta eragindakoak behartzen baitituzte beti aukeratzera, edo funtzionalki justifikatuta ez dagoen eta desiragarri ez den karga bat eraman, edo beren nahikari legitimoak Plan Orokorren berrikuspenera bukatu arte atzeratu, horrek ezinbestean luze joko badu ere.

Aldaketaren premia eta efikazia bat datoz lehenago aipatu ditugun haren beharra eta egokierarekin; aldagetaren proportzionaltasuna eta efizientzia xedea lortzeko beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipiotik eratortzen da; aldagetaren segurtasun juridikoa eta gardentasuna ezarritako prozeduraren arabera kudeatzearen emaitza izango dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56 h artikuluan xedatutakoaren ildotik, lerrokadurak eta sestrak finkatzea hirigintza-antolamendu xehatuaren parte da, eta arau horrek berak, 68. artikuluan, izaera xehatua aitortzen die era horretako aldagetei, plan partzialak tramitatzeke nahitaezko dokumentazioan sartzen dituen zuzenketak.

Aldaketaren bitartez, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu nahi da, lurzati urbanoen kalifikazio xehatuko zenbait lerrokadura zuzendu eta doitzeko Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko zenbait toki-erakundetan: Ariniza, Amarita, Andetxa, Betoña, Gometxa, Ilarratza, Lasarte, Legarda, Miñao, Otogoien, Subilla eta Uribarri Nagusia.

Lerrokadurak berriki eguneratutako katastrora doitzeko helburuarekin egiten dira zuzenketak, eta orobat egindako urbanizazio-obren errealitatera moldatzeko, menpeko toki-erakundeetako espazio publikoak murrizteko borondatearekin, gaur egun dimentsio handiegiak ematen baitizkie antolamenduak —konfigurazio tradizionalaren kalte—, hartara lehendik direnak mantentzen daitezela ahalbidetuz eta lagapenak gutxituz, gaur egun tramitatzen ari den Plan Orokorren

berrikuspeneko aurreikuspenen ildotik, hau da, HAPOn Aurrerapena landu aurreko proposamen barruko 3. koadernoan —Hiri garapen kontrolaturako estrategia. Bizitegi-lurzorua, menpeko toki-erakundeetan— jasotako aurreikuspenen ildotik. Detektatutako akats faktiko batzuk ere zuzendu dira. Proposatutako aldaketa guztiak Nekazaritza Eremuaren bulegoarekin, Kartografia eta topografia bulegoarekin eta Plan Orokorren Berrikuspenaren jarraipen-lantalde teknikoarekin kontrastatu dira.

Era berean, Euskaltzaindiak finkatutakora moldatu dira herrien izenak, eta kendu egin da menpeko toki-erakundeetako lerrokaduren eta kalifikazio xehatuaren planoetan gainjarritako lursail-zatiketa, hartara, azken hori etengabe berrikusten denez, deseguneratzerik gerta ez dadin.

Dokumentuaren zirriborroa egin ondoren, 2019ko martxoaren 5ean, txostena eskatu zaie aldaketaren eraginpeko administrazio-batzarrei eta arlo horretan eskumena duten administrazio eta organismoak.

2019ko maiatzaren 8an, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen, eta 2019ko apirilaren 8an, berriz, Uribarri Dibiñako administrazio-batzarraren txostena, non aldakuntzaren agiriaren zirriborroan aurreikusten den 3/30 lurzatiaren hirigintza-lerrokaduraren kontra ageri baita. Onetsi egin da alegazioa, eta kendu egin da lurzati horri zegokion aldaketa.

Era berean, 2019ko maiatzaren 2an, Nekazaritza Eremuaren Udal Zerbitzuaren proposamen bat jaso zen, Betoñuko lerrokaduren beste aldaketa bat kontuan har zedin. Proposamen horren kontrako txostena egin zuen Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuak, eta bat egin zuen irizpide horrekin Hirigintza Kudeaketako buruak; beraz, ezetsi egin da.

2019ko azaroaren 29an, udal-antolamenduaren aldaketa hori jasotzen duen udal teknikarien proiektua onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, baita hasierako onespena ematea ere.

2019ko abenduaren 12an eta 13an, hurrenez hurren, prentsan eta ALHAOn argitaratu zen Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren xedapen-zatia, dosierra Vitoria-Gasteizko Udalaren Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan eskuragarri zegoela zehaztuta.

2020ko otsailaren 14an, Uraren Euskal Agentziaren aldeko txostena jaso zen, zeini Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostena erantsi baitzitzaion.

Aurreko paragrafoan aipatutako txostenean, honela dago jasota, jabari publiko hidraulikoari eta horren babes-zonei dagokionez: Lerrokadura berrien proposamenen parterik handienak ez die eragiten jabari publiko hidraulikoari, ezta horien babes eremuei ere. Otogoien I, Ariniz, Subilla eta Uribarri Nagusia I eta II-n bakarrik daude lerrokadura berriak planteatzen diren esparruak zenbait ibai-ibilguren polizia-zonatan kokatuta.

Horrela, Arinizen, iparraldeko eta mendebaldeko ertzetatik doan erreka txikiraino hedatzen da egungo esparrua. Uribarri Nagusia I-en kasuan, erreka lurpetik doa, aldaketaren xede den esparruan goiko aldean.

Aldaketa puntual honek garapen berririk ez badakar ere, lurzati horietan jarduerik planteatzen bada, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena beharko da, Uraren Euskal Agentzian izapidetu ondoren.

Uholde-arriskuari dagokionez, Uraren Euskal Agentziaren txostenean honela dago jasota: Uribarri Nagusia I-en proposatutako aldaketa (lerrokaduraren doikuntza) Santo Tomas erreka uholdeak sortzeko arriskua dagoen lurzati batean egingo da. Lurzatiaren ekialdeko partea lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan legoke, eta, gutxi gorabehera, partzelaren erdia baino gehiago 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uraldiaren eraginpean.

Hori kontuan izanik, lurzati horretan jarduerarik planteatzen bada, abenduaren 9ko 638/2016 Errege Dekretuaren 9. ter eta 14. bis artikuluetan eta EAEko Ibai eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren E.2.3, E.2.4 eta E.2.5 ataletan xedatutakoa bete beharko da. (Azaroaren 19ko 449/2013 dekretua).

Jendaurrean erakusteko epean alegazioak jaso dira, eta horiei buruzko txostena egin du Hirigintza Kudeaketako buruak. Honela dio bertan:

Hiru alegazio jaso dira:

— Gometxako bizilagun bat herri horretan aurreikusitako aldaketaren kontra azaldu zen 2020ko urtarrilaren 14ko idazkian.

— Lasarteko administrazio-batzarra herri horretan aurreikusitako aldaketaren kontra agertu zen 2020ko urtarrilaren 15eko idazki baten bidez, baina gerora erretiratu egin du alegazioa, martxoaren 6ko idazki bat dela medio.

— Gometxako bizilagun batek, 2019ko abenduaren 26ko idazki baten bidez, beste zuzenketa bat eskatu zuen, herri horretako 8. poligonoko 17. lurzatia zela eta.

Lehenengo alegazioa onartzea proposatzen da, dokumentu honetan desadostasunik sortzen ez duten aldaketak bakarrik tramitatzeko irizpide orokorra aplikatuz, eta gatazkatsu direnak banaka aztertzeko uztea; bigarrena aurkeztu gabekotzat jotzea, eta hirugarrena, berriz, ezestea, dosierra berriro abiarazi beharrik izan ez dadin —gurpil zoro batean erortzeko arriskua baimelkarke horrek—, nahiz eta horrek ez duen esan nahi eskabidearen bidez kotasunari buruzko erabakirik hartu denik.

Lehenengo alegazioa onartzeak —eta hirugarrena baztertzeak— oroitidazkia zuzendu beharra dakar, alegazioaren xede den proposamena kentzeko, baina uste izan da hori ez dela berriro jendaurrean jartzea eskatzen duen funtsezko aldaketa bat.

Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual horri dagokion proiektuaren oroitidazkian jasota daude xedea, ekimena, aldaketaren komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, eragin sektorialak, genero-ikuspegia eta eragin soziolinguistikoa, eta behar diren planoak eta dokumentazio grafikoa erantsi zaizkio.

Ingurumenaren arloko tramitazioari dagokionez, dokumentuaren oroitidazkian adierazten da ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazioa egitea; izan ere, aldaketak ez baitu ezartzen etorkizunean lege ingurumen-ebaluazioaren mende egongo diren proiektuak baimentzeko markoa, eta ez baitie eragiten ez Natura 2000 Sareko espazioei, ez nazioarteko hitzarmenen edo natura-ondareari edo biodibertsitateari buruzko oinarritzko legediaren edo autonomia-erkidegoko natura zaintzeko legediaren aplikazioz emandako arau-xedapen orokorren ondorio den ingurumen-babesaren arloko inongo erregimeneko espazioei.

Are gehiago, ez ditu erabilerak ezartzen ere, baizik eta finkatutako erabileren mugapenak aldatzen, guztia ere udal mailan eta hedadura gutxiko zonetan, Plan Orokorraren aldaketa minimoaren izaerarekin, txikira ere ez baita iristen ingurumen-legedian ezarritakoaren arabera, ez direnez aldatzen ez estrategia, gidalerroak eta proposamenak, ez planaren kronologia, eta ez duenez diferentziarik sortzen aurreikusitako efektiboetan edo horien eragin-eremuan.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioz, eta Euskadiko Auzitegi Nagusiak 114/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako 129/2018 epaiarekin bat etorritik, uste izan da aldaketa honek ez duela ingurumen-ebaluaziorik eskatzen.

Aplikatzekoak diren legeko arauak dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxieneko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plan orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak —2/2006 Legea garatzen duenak— 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Tokiko Gobernu Batzarra da Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proiektua onesteko organo eskuduna; izan ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1.c) artikuluan — Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onestea, horien behin betiko nahiz behin-behineko onespena Udalbatzari dagokionean, eta, era berean, bera da aldaketa honi hasierako onespena emateko organo eskuduna, indarrean dagoen Plan Orokorreko antolamendu xehatuari eragiten dionez.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.c) artikulua (Tokiko Gobernu berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) xedatutakoaren arabera. Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako tresnen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onespena ere.

Onetsi eta dokumentuan jaso diren alegazioek ez dakartenez berekin funtsezko aldaketarik, bidezko da Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa hori udalbatzaren osoko bilkuran bozkatzea, ezinbesteko izapidea baita behin betiko onespena emateko.

Proposatzen den Plan Orokorren aldaketarekin bat etorriz, dossierrean jasotako hirigintza-agirietan horren beharra eta egokiera justifikatzen delarik, ikusirik aipatutako aginduak nahiz aplikatu beharreko beste guztiak, eta aipatutako legearen 122.4.a) artikuluan aitortzen zaizkion eskumenak baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau har dezala proposatzen dio Vitoria-Gasteizko Udaleko udalbatzari:

Erabakia


1. Tokiko Gobernu Batzarrak proposatutako alegazioa onestea, Hirigintza Kudeaketako buruak horretarako egindako txostenean azaltzen den moduan, eta gainerako alegazioak ezestea/ez jarritzat jotzea, delako txostenean adierazi bezala.


2. Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualari, udalerriko hainbat menpeko toki-erakundetako kalifikazio xehatuko lerroka-dura batzuk zuzentzeko, udal teknikariek 2020ko martxoan idatzitako oroitidazkiaren arabera.


3. Erabaki hau eta aipatutako aldaketaren hirigintza arauak ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak xedatutakoaren ildotik.


4. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorriz.


Dossierreko dokumentazio tekniko esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-zuzenketakht2019.


Aldatutako planoak


















PLANEAMIENTO PROPUESTO / PLANGINTZA PROPOSAMENA

















Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 23an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE